

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala****Bakioko Udalak zerbitzuak emotearren edo jarduerak egitearren prezio publikoak arautzen dauzen Ordenantzearen aldarazpenaren behin betiko onarpena (iragarkia 2018-06-05 Bakio).**

Bakioko Udabatzak, 2018ko apirilaren 12an egindako ohiko osoko bilkuran, honako hau erabaki zuen: zerbitzuak emotearren edo jarduerak egitearren prezio publikoak arautzen dauzan ordenantzearen aldarazpena hasikera batean onartzea, beti be Udalekuen prezio publikoei jagokenez, hala behar balitz.

Gauzak horrela, espedientea jendaurrean azaldu zen 30 egun baliodun epean, udal ediktu oholean, udaleko web gunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ipinitako iragarkien bidez.

2018ko apirilaren 12ko erabaki hori eta berari buruzko aurrerakin guztiak arauk agintzen duten epean jendaurrean ezarri eta inork ere erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez duenez gero, erabaki hori, behin betiko onetsi dela ulertu beharko da.

Aldarazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, testua argitaratu eta bi hilabeteko epean, beti be iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita. Horrela bada, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46 artikulua ezarritakoarekin bat etorri.

Era berean, aldarazpena oso-osorik argitaratzen da, ordenantzan era honetara jasotzeko:

UDALEKUAK

Uda garaian eta 4 astetan zehar 5-11 urte bitarteko umei zuzenduta daude.

— *Prezioak*: Prezioa 70 eurokoa izango da aste eta ume bakoitzeko. Aste bete baino gehiagorako edota neba-arrebentzako prezioak ondorengo taulan azaltzen dira.

Ume bakoitzaren prezioa asteko 70 euro			
Prezio taula, asteen eta neba-arreba kopuruaren arabera (€)			
Ume 1 / astebete	70,00		
Ume 1 / 2 aste	135,00	2 ume / astebete	135,00
Ume 1 / 3 aste	185,00	3 ume / astebete	185,00
Ume 1 / 4 aste	235,00	4 ume / astebete	235,00
2 ume / astebete	135,00	3 ume / astebete	185,00
2 ume / 2 aste	250,00	3 ume / 2 aste	345,00
2 ume / 3 aste	250,00	3 ume / 3 aste	490,00
2 ume / 4 aste	445,00	3 ume / 4 aste	600,00

Bakion, 2018ko ekainaren 25ean.— Alkate andrea, Amets Jauregizar Baraiazarra